Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea — NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA / CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

**I. ERANSKINA**

**HEZKUNTZA LANKIDETZARAKO HITZARMENA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA AYUNTAMIENTO DE ERMUA ERAKUNDE LAGUNTZAILEAREN ARTEKOA, Gizarte Langintzako Gradua TITULUKO IKASLEEN KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKO CURRICULARRAK EGITEKO**

Gasteiz, 2022ko uztailaren 21ean

**BILDUTA**

Alde batetik, AMAIA INZA BARTOLOME and/jn, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen izenean (UPV/EHU, aurrerantzean), Dekanoa gisa jardunez eta indarrean dagoen Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiak ezarritakoaren arabera.

Eta bestetik, Juan Carlos Abascal Candas and/jn, AYUNTAMIENTO DE ERMUA ren izenean (erakunde laguntzailea, aurrerantzean), Langileen zinegotzi ordezkari gisa jardunez

Elkarri aitortzen diote hezkuntza lankidetzarako hitzarmen hau izenpetzeko legez behar den gaitasuna, eta

**ADIERAZI DUTE:**

**Lehenengoa**.- UPV/EHUren helburuetako bat hauxe da: *"Kalitatezko goi mailako irakaskuntza eskaintzea, ikasleen heziketa osoa bultzatzea eta lanean hasteko beharrezkoa den prestakuntza ziurtatzea"*.

**Bigarrena**.- Erakunde laguntzaileak helburu horiek lortzen lagundu nahi du, *Gizarte Langintzako Gradua* ikasleei bere instalazioetan praktikak egiteko aukera emanez.

**Hirugarrena**.- Kanpoko praktika akademikoak prestakuntza jarduera bat dira, ikasleek egin eta unibertsitateak gainbegiratzen dituena, eta helburutzat dute ikasleek beren prestakuntza akademikoan jaso dituzten ezagutzak aplikatzea eta osatzea, beharrezko gaitasunak eskura ditzaten lan profesionalerako prestatzeko, enplegagarritasuna errazteko eta beren ekintzailetza sustatzeko.

**Laugarrena**.- Zehazki, curriculum praktikak kasuan kasuko ikasketa plana osatzen duten jarduera akademiko gisa eratzen dira.

**Bosgarrena**.- UPV/EHUk Gizarte Langintzako Gradua titulua(k) eskaintzen du/ditu, eta erakunde laguntzaileak Zerbitzuak sektorean dihardu.

**Seigarren**.- Unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen uztailaren 11ko 592/2014 Errege Dekretuaren 7. artikuluak honela dio: *"Kanpoko praktikak egiteko, unibertsitateek eta, hala dagokionean, haiei lotuta praktikak kudeatzen dituzten erakundeek hezkuntza lankidetzarako hitzarmenak izenpetuko dituzte erakunde laguntzaileekin"*. Aurreikuspen bera jasotzen da Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren Arautegian.

**ANEXO I**

**CONVENIO DE COOPERACIÓN EDUCATIVA ENTRE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA Y LA ENTIDAD COLABORADORA AYUNTAMIENTO DE ERMUA PARA LA REALIZACIÓN DE PRÁCTICAS ACADÉMICAS EXTERNAS CURRICULARES DEL ALUMNADO DE LA TITULACIÓN Grado en Trabajo Social**

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de julio de 2022

**REUNIDAS/REUNIDOS**

De una parte, Dña./D. AMAIA INZA BARTOLOME, en representación de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (en adelante, UPV/EHU), en su condición de Decana y en virtud de lo establecido en la vigente Normativa Reguladora de las Prácticas Académicas Externas del Alumnado.

Y de otra, Dña./D.Juan Carlos Abascal Candas, en representación de AYUNTAMIENTO DE ERMUA (en adelante, entidad colaboradora), actuando en virtud de su condición de Concejal delegado de personal

Reconociéndose mutuamente la capacidad legal necesaria para suscribir el presente convenio de cooperación educativa

**MANIFIESTAN**

**Primero**.- Que la UPV/EHU tiene entre sus fines *"La educación superior de calidad que contribuya a la formación integral de sus estudiantes y asegure su preparación profesional para la inserción en el mundo laboral".*

**Segundo**.- Que la entidad colaboradora está interesada en contribuir a los fines indicados mediante la realización de prácticas en sus instalaciones por parte del alumnado del *Grado en Trabajo Social.*

**Tercero**.- Que las prácticas académicas externas constituyen una actividad de naturaleza formativa realizada por el alumnado y supervisada por la universidad, cuyo objetivo es permitirles aplicar y complementar los conocimientos adquiridos en su formación académica, favoreciendo la adquisición de competencias que les preparen para el ejercicio de actividades profesionales, faciliten su empleabilidad y fomenten su capacidad de emprendimiento.

**Cuarto**.- Que, en concreto, las prácticas curriculares se configuran como actividades académicas integrantes del plan de estudios de que se trate.

**Quinto**.- Que la UPV/EHU oferta la titulación/titulaciones Grado en Trabajo Social, y la entidad colaboradora desarrolla su actividad en el sector/sectores Servicios.

**Sexto**.- Que el artículo 7 del Real Decreto 592/2014, de 11 de julio, por el que se regulan las prácticas académicas externas del alumnado universitario establece que *"Para la realización de las prácticas externas, las universidades o, en su caso, las entidades gestoras de prácticas a ellas vinculadas, suscribirán Convenios de Cooperación Educativa con las entidades colaboradoras"*, previsión que también se contempla en la Normativa de la UPV/EHU Reguladora de las Prácticas Académicas Externas del Alumnado.

Hori dela eta, bi aldeek

**ERABAKI DUTE**

**Bakarra**.- Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmen hau sinatzea, klausula hauen arabera.

**KLAUSULAK**

**Lehenengoa.- Xedea**

Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmen honen xedea da UPV/EHUko ikasleek aipatutako erakunde laguntzailean curriculum praktikak egin ditzaten baldintzak arautzea, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen uztailaren 11ko 592/2014 Errege Dekretuan eta Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUko Arautegian ezarritakoaren arabera.

**Bigarrena.- Prestakuntza proiektuaren lekua, garapena eta ebaluazioa**

Hitzarmen honi erantsiko zaion II. eranskinean zehaztuko da non egingo diren praktikak.

Iraupena eta ordutegiak ikastegiaren eta erakundearen artean adostuko dira, curriculumaren kanpo praktikaren irakasgaiaren ezaugarriak eta erakundearen ahaltasuna kontuan hartuta, praktika horrek haren jarduera arruntean eragin txikiena izan dezan.

Prestakuntza proiektuak honako atal hauek izango ditu gutxienez:

- Erakundearen datuak.
- Tituluaren datuak.
- Erakundeko instruktorea.
- Tutore akademikoa.
- Oinarrizko gaitasunak, gaitasun generikoak eta espezifikoak.
- Zehaztutako gaitasunekin zerikusia duten ikaskuntza emaitzak.
- Ikasleek egin beharreko jarduerak eta zereginak (praktiken zentroan eta unibertsitate ikastegian).

**Hirugarrena.- Erakunde laguntzailearen eta ikaslearen arteko harremana**

1.- Prestakuntza jarduerak direnez, kanpoko praktika akademikoek ez dute lan harreman bati dagokion inolako betebeharrik izango, eta ezin izango dira erabili ere lanpostu bateko lan arautuaren ordezko gisa.

2.- Halaber, ikasketak amaitu eta gero, ikaslea erakunde laguntzailearen plantillan sartzen bada, praktiken denbora ez da zenbatuko antzinatasun ondorioetarako, eta probaldia ez da salbuetsiko, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan beste zerbait zehaztuta egon ezean.

**Laugarrena.- Praktikako instruktorea**

1.- Erakunde laguntzaileak instruktore bat esleituko dio ikasle bakoitzari, eta hark antolatuko ditu prestakuntza jarduerak, ikaslearen tutorearekin batera, eta praktikaren garapenaren berri emango dio tutoreari, prestakuntza proiektua betetzeari begira.

2.- Erakunde laguntzaileak izendatuko duen instruktorea erakunde horri lotutako pertsona bat izango da, eta, eskarmentu profesionala ez ezik, tutoretza lan egokia egiteko ezagutzak ere izango ditu. Instruktorea eta unibertsitatearen tutoretza lana egingo duen pertsona ez dira bat eta bera izango.

Por lo expuesto, ambas partes

**ACUERDAN**

**Único**.- Suscribir el presente Convenio de Cooperación Educativa de acuerdo con las siguientes

**CLÁUSULAS**

**Primera.- Objeto**

Es objeto del presente Convenio de Cooperación Educativa regular los términos en que se desarrollarán las prácticas académicas curriculares del alumnado de la UPV/EHU en la citada entidad colaboradora, de conformidad con lo establecido en el Real Decreto 592/2014, de 11 de julio, por el que se regulan las prácticas académicas externas de las/ los estudiantes universitarias/os y en la Normativa de la UPV/EHU Reguladora de las Prácticas Académicas Externas del Alumnado.

**Segunda.- Lugar, realización, desarrollo y evaluación del proyecto formativo**

El lugar donde se desarrollarán las prácticas se indicará en el Anexo II que se incorpore a este convenio.

La duración y los horarios se acordarán entre el Centro y la Entidad teniendo en cuenta las características de la asignatura de práctica externa curricular y de las disponibilidades de la entidad, para que dicha práctica tenga la menor incidencia en su actividad ordinaria.

El proyecto formativo estará compuesto mínimamente por los siguientes apartados:

- Datos de la entidad
- Datos de la titulación
- Datos de la persona Instructora
- Datos de la persona tutora académica
- Competencias básicas, genéricas y específicas.
- Resultados de aprendizaje relacionados con las competencias definidas.
- Actividades y tareas a realizar por el alumnado (en el centro de prácticas y en el centro universitario).

**Tercera.- Relación entre la entidad colaboradora y la alumna o alumno**

1.- Dado el carácter formativo de las prácticas académicas externas, de su realización no se derivarán, en ningún caso, obligaciones propias de una relación laboral, ni su contenido podrá dar lugar a la sustitución de la prestación laboral propia de puestos de trabajo.

2.- Asimismo, y en el caso de que al término de los estudios la persona estudiante se incorporase a la plantilla de la entidad colaboradora, el tiempo de las prácticas no se computará a efectos de antigüedad ni eximirá del período de prueba salvo que en el oportuno convenio colectivo aplicable estuviera expresamente estipulado algo distinto.

**Cuarta.- Instructora o instructor de las prácticas**

1.- La entidad colaboradora designará una persona instructora por cada alumna o alumno que se encargará de organizar las actividades formativas de acuerdo con la persona tutora de la alumna o del alumno y de informar a la persona tutora sobre el desarrollo de la práctica en cumplimiento del Proyecto Formativo.

2.- La persona instructora designada por la entidad colaboradora deberá ser una persona vinculada a la misma, con experiencia profesional y con los conocimientos necesarios para realizar una tutela efectiva. No podrá coincidir con la persona que desempeña las funciones de tutora o de tutor

3.- Instruktoreak Praktiken Programako arduradunaren onespena izan beharko du, eta venia docendiren aitorpena suposatuko du, zeina gauzatuko baita Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzeko UPV/EHUko Arautegiak ezarritakoaren arabera.

de la universidad.

3.- La persona instructora deberá contar con la conformidad de la o el Responsable del Programa de Prácticas y supondrá el reconocimiento de la Venia Docendi que se materializará de acuerdo con el procedimiento señalado en la Normativa de la UPV/EHU Reguladora de las Prácticas Académicas Externas del Alumnado.

**Bosgarrena.- Instruktorearen eskubideak eta betebeharrak**

1. Honako eskubide hauek izango ditu erakunde laguntzaileko instruktoreak:

a) Laguntzaile gisa eginiko lana aitortua izatea, aurreko klausularen 3. zenbakian ezarritako baldintzetan.

b) Kanpoko praktikak arautzen dituen arautegiari buruzko informazioa jasotzea, baita prestakuntza proiektuari eta hura aurrera eramateko baldintzei buruzkoa ere.

c) Unibertsitatera jo ahal izatea, bere eginkizunak betetzeko behar duen informazio eta laguntza eske.

2. Era berean, betebehar hauek izango ditu:

a) Ikasleari harrera egitea, eta egin beharreko jarduerak antolatzea, prestakuntza proiektuaren arabera.

b) Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea eta praktika orientatzea eta kontrolatzea, elkarrekiko errespetuan eta ikaskuntzarekiko konpromisoan oinarritutako harreman baten bitartez.

c) Ikasleari erakundearen antolakuntza eta funtzionamenduaren berri eman beharko dio, baita intereseko araudia ezagutarazi ere; batez ere, segurtasunaren eta lan arriskuen arlokoa.

d) Unibertsitateko tutorearekin koordinatzea, prestakuntza proiektuan ezarritako jarduerak egiteko eta horren garapenean sor daitezkeen gorabeherak jakinarazteko eta konpontzeko, bai eta azterketak egiteko baimenak kontrolatzeko ere.

e) Ezarritako ebaluazio prozesuan parte hartzea. Ikastegiak horren berri emango dio.

f) Ikasleari praktika egiteko behar duen prestakuntza osagarria ematea.

g) Ikasleari praktikarako behar dituen ezinbesteko baliabide materialak ematea.

h) Ikasleari erraztasunak eta adorea ematea, berrikuntzarekin, hobekuntzarekin eta ekintzailetzarekin loturiko proposamenak egin ditzan.

i) UPV/EHUko tutoreari erakundearekiko harremanak erraztea, bere eginkizunak ondo bete ditzan.

j) Instruktore lanaren bidez ikasleari buruzko informazioa eskuratzen badu, informazio hori isilpean gordetzea.

k) Erakundean dagoen bitartean, ikasleari laguntzea jardunean sortzen zaizkion arazoak konpontzeko edo zalantza profesionalak argitzeko.

**Quinta.- Derechos y deberes de la persona instructora**

1. La persona instructora de la entidad colaboradora tendrá los siguientes derechos:

a) Al reconocimiento de su actividad colaboradora, en los términos recogidos en el número 3 de la cláusula anterior.

b) A ser informada acerca de la normativa que regula las prácticas externas, así como del proyecto formativo y de las condiciones de su desarrollo.

c) A tener acceso a la universidad para obtener la información y el apoyo necesarios para el cumplimiento de los fines propios de su función.

2. Asimismo tendrá los siguientes deberes:

a) Acoger a la alumna o al alumno y organizar la actividad a desarrollar con arreglo a lo establecido en el proyecto formativo.

b) Supervisar las actividades de la alumna o del alumno, orientar y controlar el desarrollo de la práctica con una relación basada en el respeto mutuo y el compromiso con el aprendizaje.

c) Informar a la alumna o al alumno de la organización y funcionamiento de la entidad y de la normativa de interés, especialmente la relativa a la seguridad y riesgos laborales.

d) Coordinarse con la persona tutora de la universidad para el desarrollo de las actividades establecidas en el proyecto formativo, así como comunicar y resolver posibles incidencias que pudieran surgir en el desarrollo del mismo y controlar los permisos para la realización de exámenes.

e) Participar en el proceso de evaluación establecido y del que ha sido informada o informado desde el Centro.

f) Proporcionar la formación complementaria que precise la alumna o el alumno para la realización de las prácticas.

g) Proporcionar a la alumna o al alumno los medios materiales indispensables para el desarrollo de la práctica.

h) Facilitar y estimular la aportación de propuestas de innovación, mejora y emprendimiento por parte de la alumna o del alumno.

i) Facilitar a la persona tutora de la UPV/EHU el acceso a la entidad para el cumplimiento de los fines propios de su función.

j) Guardar confidencialidad en relación con cualquier información que conozca de la alumna o del alumno como consecuencia de su actividad como persona instructora.

k) Prestar ayuda y asistencia a la alumna o al alumno, durante su estancia en la entidad, para la resolución de aquellas cuestiones de carácter profesional que pueda necesitar en el desempeño de las actividades que realiza en la misma.

**Seigarrena.- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak**

1. Kanpoko praktikak egitean, ikasleak honako eskubide hauek izango ditu:

a) Praktikek irauten duten bitartean, unibertsitateko irakasle baten eta praktika bideratzen ari den enpresa, instituzio edo erakundean jardunean ari den profesional baten tutoretzarako eskubidea.

b) Ebaluaziorako eskubidea, unibertsitateak zehazturiko irizpideen arabera.

c) Praktikak egin dituen erakunde laguntzaileak egindako txostena eskuratzeko eskubidea. Bertan, berariaz aipatuko dira egindako jarduera, iraupena eta, hala badagokio, errendimendua, unibertsitateak ezarritako prozedurari jarraiki.

d) Hala zehaztu den kasuetan, ikasketetarako laguntza gisa finkatutako

**Sexta.- Derechos y deberes del alumnado**

1. Durante la realización de las prácticas académicas externas, la alumna o el alumno tendrá los siguientes derechos:

a) A la tutela, durante el período de duración de la correspondiente práctica, por una profesora o un profesor de la universidad y por una o un profesional que preste servicios en la empresa, institución o entidad donde se realice la misma.

b) A la evaluación de acuerdo con los criterios establecidos por la universidad.

c) A la obtención de un informe por parte de la entidad colaboradora donde ha realizado las prácticas, con mención expresa de la actividad

ekarpen ekonomikoa jasotzeko eskubidea.

e) Jabetza intelektual eta industrialerako eskubidea, arloan arloko legediak arautzen dituen baldintzetan, ikasleak eskubide horren lagapen edo transmisiorako dokumentua sinatu duen kasuetan izan ezik.

f) Segurtasun eta lan arriskuen prebentziorako araudiaren gaineko informazioa jasotzeko eskubidea, erakunde laguntzaileak eman beharko duena.

g) Bere jarduera akademikoa, prestakuntza lana eta ordezkaritza nahiz partaidetza betebeharrak betetzeko eskubidea, aldez aurretik erakunde laguntzaileari jakinarazita.

h) Ezgaitasuna duten ikasleen kasuetan, praktikak besteen baldintza berberetan egiteko eta tutoretza, informazioa eta ebaluazioa jasotzeko eskubidea.

i) Ezgaitasunak dituzten ikasleen kasuan, praktikak ezgaitasunari lotutako edo hortik eratorritako jarduերetara eta egoera pertsonalera egokitzeko eskubidea.

j) Indarrean den araudian eta unibertsitateak eta erakunde laguntzaileak izenpetutako hezkuntza lankidetzarako hitzarmenetan aurreikusitako beste eskubide guztiak.

2. Era berean, kanpoko praktika akademikoak egin bitartean, ikasleek honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Kanpoko praktiken arloan indarrean dagoen araudia, unibertsitateak zehaztu zuena, betetzea.

b) Praktiken gaineko prestakuntza proiektua ezagutzea eta betetzea, erakunde laguntzaileak izendatutako instruktorearen oharrei jarraiki eta unibertsitateko tutorearen zaintzapean.

c) Unibertsitateko tutorearekin harremana izatea, praktika egin bitartean, eta praktikarekin zerikusia duen edozein gorabehera jakinaraztea, bai eta eskatzen zaizkion agiriak entregatzea ere.

d) Erakunde laguntzailean hitzartutako egunean hastea, hezkuntza proiektuan aurreikusitako ordutegia betetzea, praktikaren araberako jantziak eta higienea mantentzea, eta erakundearen funtzionamendu arauak eta segurtasun eta lan arriskuen prebentziorako arauak errespetatzea.

e) Praktiketako instalazioen eta bertako pertsonen segurtasuna bermatuko duen jarrera erakustea.

f) Prestakuntza proiektua garatzea eta erakunde laguntzailearekin hitzartutako jarduerak egoki betetzea, proiektuan ezarritako lan ildoen arabera.

g) Prestakuntza proiektuan aurreikusitako dokumentuak eta/edo txostenak egitea eta entregatzea.

h) Konfidentzialtasuna bermatzea, erakunde laguntzailearen barne informazioari dagokionez, eta sekretu profesionala gordetzea. Beraz, ez du hitzartutako praktikatik lor dezakeen daturik jakinaraziko edo inoren esku utziko, ez praktikak hasi aurretik, ez praktikak egin bitartean ezta amaitu ondoren ere.

i) Proposatutako argibideak eta segurtasun neurriak betetzea baliabide informatikoak erabiltzean, informazioa eskuratzean eta dokumentuak zaintzean, baita instalazioen segurtasun neurriak bete behar direnean ere.

j) Une oro, erakunde laguntzailearen politikarekiko errespetuzko jarrera erakustea, partaide den unibertsitatearen izen ona zainduta.

k) Indarrean dagoen araudian eta unibertsitateak erakunde laguntzailearekin sinatutako hezkuntza lankidetzarako hitzarmenetan aurreikusitako beste edozein betebehar.

3. Aurreko atalean aipatu diren betebeharrak bete ezean, praktikak bertan behera utzi ahal izango dira. Horretarako, UPV/EHUk edo erakunde laguntzaileak Praktiketako Arautegiak ezarritako Jarraipen Batzordeari horren berri emango dio, eta horrek kasuan kasuko praktika aurretik eteteari buruzko erabakia hartu beharko du, 10 eguneko epean gehienez.

desarrollada, su duración y, en su caso, su rendimiento, siguiendo el procedimiento establecido por la universidad.

d) A percibir, en los casos en que así se estipule, la aportación económica en concepto de bolsa o ayuda al estudio.

e) A la propiedad intelectual e industrial en los términos establecidos en la legislación reguladora de la materia, salvo que la alumna o alumno haya suscrito el documento de cesión o transmisión correspondiente.

f) A recibir, por parte de la entidad colaboradora, información de la normativa de seguridad y prevención de riesgos laborales.

g) A cumplir con su actividad académica, formativa y de representación y participación, previa comunicación con antelación suficiente a la entidad colaboradora.

h) A disponer de los recursos necesarios para el acceso del alumnado con discapacidad a la tutela, a la información, a la evaluación y al propio desempeño de las prácticas en igualdad de condiciones.

i) A conciliar, en el caso de alumnado con discapacidad, la realización de las prácticas con aquellas actividades y situaciones personales derivadas o conectadas con la situación de discapacidad.

j) Aquellos otros derechos previstos en la normativa vigente y/o en los correspondientes convenios de cooperación educativa suscritos por la universidad con la entidad colaboradora.

2. Asimismo y, durante la realización de las prácticas académicas externas el alumnado deberá atender al cumplimiento de los siguientes deberes:

a) Cumplir la normativa vigente relativa a prácticas externas establecida por la universidad.

b) Conocer y cumplir el proyecto formativo de las prácticas siguiendo las indicaciones de la persona instructora asignada por la entidad colaboradora bajo la supervisión de la tutora o tutor de la universidad.

c) Mantener contacto con la persona tutora de la universidad durante el desarrollo de la práctica y comunicarle cualquier incidencia relacionada con la práctica, así como hacer entrega de los documentos que le sean requeridos.

d) Incorporarse a la entidad colaboradora de que se trate en la fecha acordada, cumplir el horario previsto en el proyecto educativo, mantener indumentaria e higiene acorde a la práctica concreta y respetar las normas de funcionamiento, seguridad y prevención de riesgos laborales de la misma.

e) Mostrar una actitud que garantice la seguridad de las personas y de las instalaciones en las prácticas.

f) Desarrollar el proyecto formativo y cumplir con diligencia las actividades acordadas con la entidad colaboradora conforme a las líneas establecidas en el mismo.

g) Elaborar y entregar los documentos y/o informes y/o memorias previstos en el proyecto formativo.

h) Guardar confidencialidad con relación a la información interna de la entidad colaboradora y guardar secreto profesional, de manera que no desvelará, comunicará ni pondrá en conocimiento de terceras personas los datos que conozca y obtenga con motivo de la práctica, antes, durante o una vez finalizada.

i) Cumplir con las medidas de seguridad e instrucciones propuestas en el uso de los recursos informáticos, en el acceso a la información y en la custodia de documentos, así como en la seguridad de las instalaciones.

j) Mostrar, en todo momento, una actitud respetuosa hacia la política de la entidad colaboradora, salvaguardando el buen nombre de la universidad a la que pertenece.

k) Cualquier otro deber previsto en la normativa vigente y/o en los correspondientes convenios de cooperación educativa suscritos por la universidad con la entidad colaboradora.

3. En caso de incumplimiento de los deberes previstos en el apartado

4. Ikasleak praktikara ez joateko aukera izango du azterketak egiteko, hiru egun lehenago instruktoreari dagokion justifikazioa emanez gero. Arrazoi akademikoengatik edo beste era bateko arrazoiengatik joan ezean, ahalik eta lasterren emango die horren berri tutoreari eta begiraleari, eta tutorearen baimena eskuratu beharko du.

anterior, la práctica podrá rescindirse anticipadamente. A tal efecto, la UPV/EHU o la entidad colaboradora deberán poner en conocimiento de la Comisión de Seguimiento establecida por la Normativa de Prácticas que deberá resolver sobre la procedencia de la rescisión anticipada de la práctica de que se trate en el plazo máximo de 10 días.

4. La alumna o el alumno podrá ausentarse de la práctica para la realización de exámenes justificándolo con una antelación de tres días ante la persona instructora. Las restantes ausencias motivadas por razones académicas o de otra índole deberán ser puestas en conocimiento de la persona instructora y de la persona tutora cuanto antes sea posible, debiendo ser autorizadas, en su caso, por la persona tutora.

**Zazpigarrena.- Instalazioak eta baliabideak**

Erakunde laguntzaileak bere instalazioen eta baliabideen erabilera bermatuko du praktikak egiteko, eta zenbat ikasle har ditzakeen zehaztuko du.

**Séptima.- Instalaciones y recursos**

La entidad colaboradora garantizará la utilización de sus instalaciones y recursos necesarios para la realización de las prácticas y determinará el número de alumnado que puede atender.

**Zortzigarrena.- Erantzukizunak eta aseguruak**

1.- UPV/EHUk erantzukizun zibileko poliza bat du, ikasleek praktikak egin bitartean sor ditzaketen kalteak estaltzeko.

2.- Erakundeko instruktoreak praktiken jarduera programan zehaztuta ez dagoen agindu edo jarraibideren bat eman, eta horren ondorioz kalteak gertatzen badira, haien erantzukizuna ez da, inola ere, unibertsitatearena izango, ez eta praktiketan ari den ikaslearena ere.

3.- Ikasketa ofizial batean matrikulatuta dauden eta 28 urtetik behera dituzten ikasleek eskola aseguru bat izango dute, espainiarrak izan edo bizileku baimena duten atzerritarrak edo europarrak izan.

Era berean, UPV/EHUk istripuetako eta laguntza sanitarioko *EHU Ikasle Asegurua* du kontratatuta, eta UPV/EHUn matrikulatutako ikasle guztiak estaltzen ditu estatuko lurraldean.

4.- Atzerrian kanpoko praktikak egiteko, *IBILI* poliza edo gutxienez horren estaldura bera duen poliza bat izenpetu beharko da.

5.- Mugikortasun edo antzeko programa baten bidez atzerriko unibertsitateetatik UPV/EHUra datozen eta kanpoko praktika akademikoak egiten dituzten ikasleek *IBILI* poliza edo gutxienez horren estaldura bera duen poliza bat izenpetu beharko dute, eta erantzukizun zibileko beste poliza bat, ikasleek praktikak egitean sor ditzaketen kalteak estaltzeko.

**Octava.- Responsabilidades y seguros**

1.- La UPV/EHU tiene concertada una póliza de responsabilidad civil para cubrir los daños que el alumnado pueda ocasionar por la realización de las prácticas.

2.- Ni la universidad ni el alumnado en prácticas serán responsables de los eventuales daños cuando se deriven de órdenes o instrucciones dadas por la persona instructora de la entidad que no figuren en el programa de actividades de las prácticas.

3.- El alumnado matriculado en una enseñanza oficial y menor de 28 años, tanto español, como europeo o extranjero con permiso de residencia, está cubierto por el seguro escolar.

Asimismo, la UPV/EHU tiene contratado el *Seguro EHU Ikasle Asegurua*, de accidentes y asistencia sanitaria, que cubre a todo el alumnado matriculado en la UPV/EHU, en territorio estatal.

4.- Para la realización de prácticas académicas externas en el extranjero, deberá suscribirse la póliza *IBILI* o una póliza que tenga una cobertura mínima similar a ella.

5.- El alumnado procedente de universidades extranjeras que venga a la UPV/EHU en un programa de movilidad o similar y realice prácticas académicas externas, deberá tener suscrita la póliza *IBILI*, o una póliza que tenga una cobertura mínima similar a ella y otra de responsabilidad civil para cubrir los daños que el alumnado pueda ocasionar por la realización de las prácticas.

**Bederatzigarrena.- Poltsa edo laguntza eta zerga eta kotizazio betebeharrak**

Oro har, ikasleek ez dute inolako kopururik jasoko praktikak egiteagatik. Hala ere, praktikak egitearen ondorioz, ikasleari ikasketetan laguntzeko poltsa edo laguntza bat ordaindu behar bazaio, erakunde laguntzaileak egin beharko du ordainketa eta zerga betebeharrak indarrean dagoen legediaren arabera bete.

Gizarte Segurantzan kotizatzeko betebeharrak egonez gero, erakunde laguntzaileak kudeatu eta ordainduko ditu.

**Novena.- Bolsa o ayuda y obligaciones fiscales y de cotización**

Por norma general, el alumnado no percibirá cantidad alguna por el hecho de realizar las prácticas. No obstante, si la realización de la práctica conllevase el abono de una bolsa o ayuda al estudio a favor del alumnado, la entidad colaboradora deberá cumplir con el pago de la misma y con las obligaciones fiscales establecidas en la legislación vigente.

Si hubiera obligaciones de cotización a la Seguridad Social, la gestión y pago de dichas obligaciones serán a cargo de la entidad colaboradora.

**Hamargarrena.- Datuak pertsonalen babestea**

Hitzarmen honen sinadurak baimena ematen du sinatu dutenen datu pertsonalak lagatzeko eta erabiltzeko hitzarmen honen helburuetarako soilik, kontuan izanik 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak eta Eskubide Digitalak babesteari buruzkoa, eta 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa,

**Décima- Protección de datos de carácter personal**

La firma de este Convenio implica la autorización para que los datos personales de las y los titulares de los mismos sean cedidos y tratados para los exclusivos fines de aquel y de acuerdo con las previsiones de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento d e

95/46/CE Zuzentaraua indargabetu ere egiten duena (datuak babesteko erregelamendu orokorra). Datuak ezin izango dira inolaz ere erabili hitzarmenean eta, hala badagokio, dagokion eranskinean jasota ez dauden helburuetarako. Datu pertsonalak ez dira inoren esku utziko, hitzarmenaren helburuen arreta, garapen, kontrol eta betetze jardueretarako ez bada, eta indarrean dagoen legediak ezarritako kasuetan izan ezik. Datuen titularrek eskubidea izango dute datuetan sarbidea izateko, zuzentzeko, ezabatzeko eta eramateko, baita haien tratamendua mugatzeko eta horren aurka egiteko ere, eta haien datuen tratamendu automatizatuan oinarritutako erabakien menpe ez egotea ere, hala dagokionean, Euskal Herriko Unibertsitatearen aurrean, Datuen Babeserako Delegatuari zuzenduz. Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia) edo dpd@ehu.eus helbidean.

Gainera, aldeek konpromisoa hartzen dute beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolakuntza arlokoak hartzeko, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta aldatu, galdu edo baimenik gabe erabiliak izan ez daitezen, aintzat haturik unean-uneko teknologia, gordetako datuen ezaugarriak eta baita arriskuak ere, giza jardueratik edo ingurune fisiko naturaletik eratorritakoak.

datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos). En ningún caso se podrán utilizar los datos para fines distintos de los previstos en este Convenio y, en su caso, en el correspondiente anexo. Los datos personales no serán cedidos o comunicados a terceros, salvo en los supuestos necesarios para la debida atención, desarrollo, control y cumplimiento de las finalidades expresadas, así como en los supuestos previstos en la legislación vigente. Las y los titulares de los datos podrán ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión y portabilidad de sus datos, delimitación y oposición a su tratamiento, así como a no ser objeto de decisiones basadas únicamente en el tratamiento automatizado de sus datos, cuando procedan, ante la Universidad del País Vasco / EuskalHerrikoUnibertsitatea, a la atención del Delegado de Protección de Datos. Barrio de Sarriena s/n, 48940 Leioa (Bizkaia) o en la dirección de correo electrónico dpd@ehu.eus.

Asimismo, las partes se comprometen a adoptar las medidas técnicas y organizativas necesarias para garantizar la seguridad de los datos de carácter personal y evitar su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado, habida cuenta del estado de la tecnología, la naturaleza de los datos almacenados y los riesgos a que estén expuestos, provengan de la acción humana o del medio físico natural.

**Hamaikagarrena.- UPV/EHUren beste konpromiso batzuk**

1. Arestian aipatutakoak albo batera utzi gabe, UPV/EHUk honako konpromiso hauek hartuko ditu parte hartzen duten ikasleekin:

a) Hitzarmen honen baldintzak jakinaraztera, eragiten dizkieten alderdi guztiei dagokienez.

b) Ikasleek hitzarmen honetan eta araudi aplikagarrian ezarritako betebeharrak bere gain hartzen dituztela zaintzea.

c) Ikasleek beren datuak berariaz lagatzea, aurreko klausulan aurreikusitako ondorioetarako.

2.- UPV/EHUk sinatutako dokumentuaren kopia bat emango dio erakunde laguntzaileari.

**Undécima.- Otros compromisos de la UPV/EHU**

1. Sin perjuicio de las anteriormente señaladas, la UPV/EHU se compromete a lo siguiente en relación con el alumnado participante:

a) A poner en su conocimiento los términos del presente convenio en todo aquello que le afecte.

b) A velar para que el alumnado asuma los deberes que se derivan del presente convenio, así como de la normativa aplicable

c) A que el alumnado acepte expresamente la cesión de sus datos a los efectos previstos en la cláusula anterior.

2.- La UPV/EHU facilitará a la entidad colaboradora una copia del documento suscrito.

**Hamabigarrena.-Jarraipen Batzordea**

1.-Jarraipen Batzorde bat eratuko da, tituluaz arduratzen diren ikastegiko bi ordezkarik eta erakunde laguntzailearen beste bi kidek osatuta. Batzorde horren egitekoa izango da praktikak egitean edo hitzarmena betetzean sor daitezken gorabeherei buruzko erabakiak hartzea.

2.- Batzordea eratu ondoren, sinatzaileak batzordeburu izango dira txandaka, eta UPV/EHUri egokituko zaio hasierako txanda.

**Duodécima.- Comisión de seguimiento**

1.-Para la resolución de las incidencias que, en su caso, puedan plantearse en el desarrollo de las prácticas o en el cumplimiento del convenio, se establecerá una Comisión de Seguimiento, formada por dos representantes del Centro responsable de la titulación y otras dos personas miembros de la entidad colaboradora.

2.- Al constituirse esta Comisión, su presidencia se desempeñará alternativamente por las partes firmantes, asignando a la UPV/EHU el turno inicial.

**Hamahirugarrena.- Hitzarmenaren indarraldia**

1.- Hitzarmen honek lau urteko indarraldia izango du sinatzen den egunetik aurrera, eta, aldi hori amaitu ondoren, esan gabe berrituko da beste lau urtez, non eta alde sinatzaileetako batek hura salatzen ez badu, hemen hitzartutakoak eraginik ez izatea nahi den ikasturtearen aurreko ikasturteko martxoan.

2.- Hitzarmenaren salaketa idatziz egin beharko da, eta ez du eraginik izango hura egiteko unean egiten ari diren praktiketan, praktikak lehenago eteteari buruz Bosgarren eta Seigarren klausuletan ezarritakoa eragotzi gabe.

**Decimotercera.- Vigencia del Convenio**

1.-El presente Convenio tendrá una vigencia de cuatro años desde la fecha de su firma, y una vez finalizado este periodo se renovará tácitamente por otros cuatro años, en caso de no ser denunciado por cualquiera de las partes suscribientes con antelación al mes de marzo del curso académico anterior a aquel en el que se pretenda no surta efecto lo aquí pactado.

2.-La denuncia del convenio deberá ser escrita y no afectará a las prácticas que ya se vinieran realizando en el momento de efectuarla, sin perjuicio de lo establecido en las cláusulas Quinta y Sexta para la rescisión anticipada de las prácticas.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, aldeek hezkuntza lankidetzarako hitzarmen hau sinatzen dute, bi aletan eta ondorio bakarrerako, idazpuruan adierazitako tokian eta datan.

Y en prueba de conformidad de cuanto antecede, las partes intervinientes firman el presente convenio de colaboración educativa por duplicado en el lugar y la fecha señalados en el encabezamiento.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA / CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

UPV/EHUren izenean / Por la UPV/EHU

AMAIA INZA BARTOLOME

(Sinadura eta zigilua) (Firma y sello)

Firmado por MIREN EDURNE ARANGUREN VIGO - ***8492** el día 21/07/2022 con un certificado emitido por Herritar eta Erakundeen CA - CA de Ciudadanos y Entidades (4)

Erakunde Laguntzailearen izenean / Por la entidad colaboradora

Juan Carlos Abascal Candas

(Sinadura eta zigilua) (Firma y sello)